

Etorkizuneko goizak

Peru Iparragirre

Poeta oparo eta saritua da Beatriz Chivite Ezkietia (Iruñea, 1991). *Pekineko kea* poema bildumarekin Iruñeko Udalak antolatutako Poesia Lehiaketa irabazi zuen 2012an -iaz argitaratu zuen liburua Pamiela argitaletxeak-; 2014ko Ernestina Champourcin XXV. Poesia Lehiaketa eta 2015eko Lauaxeta Saria eramane zituen *Metro* poemarioarekin; *Biennale* lanarekin jaso zuen Blas de Otero - Bilbo Uria nazioarteko IX. Poesia Lehiaketa. Bestalde, 2017an Beste Hitzak (Other Words) egonaldiaren baitan Mariborren (Eslovenia) idatzitako *Mugagabea* poema bilduma dagoeneko irakurgai dago sarean. Eugenio Montale poeta italiarraren aipu batek ematen dio hasiera *Biennale* (Erein, 2017) liburuari,

itsasontziak bezala amarratutako etorkizuneko goizak aurreratuz. Venezia idealizatuaren kanal ertzetan imajinatu ditzakegu gondolak, etorkizunaren aiduru. Baina datozen goizak ez dira Venezian bakarrik argitzen, Londres, Katmandu, Edinburgo, Pekin ere aipatzen baitira liburuan. Chiviteren aurreko liburuetan bezala, Hiria da poemaren agertoki



'Biennale'
Idazlea: Beatriz Txibite. **Argitaletxea:** Erein.

nagusia. Hiriaren irudi idealizatuaren aurrean, orde, poetaren esperientzia kokatu eta konkretuak dira kontaktatzen direnak, hiriarekin kontrajartzen den subjektuarenak. Izan ere, deserrira ere bada hiria, non gertuko harremanen azalekotatunak eta egonkorragoen distantziak talika egiten duten. Ohikoak bilakatu zaizkigun komunikazio baliabideen beharlagotasunaren faltsutasunak ere ari da batzuetan, bizitza birtualen balioa zalantzan jarriz.

Artea da liburua funtsezko beste zutabea. Izenburutik hasi eta poetak arteari buruz, orokorrean, egiten dituen gogoetearaino, bilduma zeharkatzen du arteak. Hainbat margolari eta eskultoreren izenak dituzte izenburuztat hainbat poemak, zeinetan haien artelanek sortutako inpresioak edo oroitzapenak irudikatzen diren. Inspirazio iturri eta ihesbide bilakatzeko da artea bera azkenean, errealitatea zalantzan jartzeko eta betekitzeko tresna sorkuntza.

Bestelako hausnarketak eta esperimentazioak ere badira liburuan: politiko-sozialak, filosofikoak eta filologikoak, besteak

beste. *Pekineko kea* liburuan dabilen hizkuntzen jokoari jarraitzen ematen dio liburu honetan Chivitek, poema batzuetan hainbat hizkuntza era naturalean elkarren segidan erabili eta mundu ikuskera forma anitzeko bat iradokituz: nahasia baino, konplexua; lehen kolpean ulertzea kostatu arren, berriz atzera itzultzea mezezi duena. Impresio bera sartzetan laguntzen dute hizpide ametsak dituzten poemak. Atmosfera oniriko erako hori da liburuan nagusi, egunerokotasuna bera normaltasun monototonik atera eta kasualitate eta konexio inkontziente askoren emaitza ere badelako irudipena emanaz, ertz eta aukera anitzekoa.

Ez da dena eder eta idilikoa, noski; *Biennale* ez da liburu xaloa. Praktiketako gazte prekarioaren bizitzak ere ari da, hiri idealizatuaren fatxadaren atzean dagoenaz, edertasuna-poetikotasuna, behintzat-bazterretan ere topatuz eta batzuetan besterik gabezikina dena ere erakutsiz, salatuz. Soiltasunez eta intuizio estetiko indartsuz bizitza eta mundua ponesiaren bidez kontatzeko abilezia duela erakutsi du berriz Chivitek.



'Lekore 4'
Egilea: Askoren artean. **Argitaratzailea:** ITU Banda. **Diseinua:** Txakur Gorria.

ITU Bandak *Lekore* literatura aldizkariaren beste zenbaki bat kaleratu du. Taldekideen eta «konplizeen» testuekin osatu dute berez bosgarren liburukia den baina 4 zenbakia daraman lana, eta, aurrekoetan bezala, askotariko edukiak dakartza: poemak, narrazioak, itzulpenak, kronikak eta elkarrizketak.



'Iragana ere gaur da'
Egilea: Joseba Aurkenerena Barandiaran. **Argitaratzailea:** Amalur-Baita argitaletxeak.

Sorginaren sudurraren punta

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Pentsatzekoa da denok ezagutzen dugula *Hansel eta Gretel* ipuina, dituen bi madarikazioekin: muturreko gosea, eta sorgin gaizto kanibala. Esku artean dugun album hau ipuin haren aldaera izanik, sorgin kanibala mantendu egin da, baina gosearen gaia leku debekatuen gaiarekin ordezkatu da, gaur egungo errealitatearen arabera, esan liteke. Gainerakoan, oso antzekoak dira bi ipuinak. Testua urria da, elkarrizketa nagusi. Boz gora irakurtzeko osoa. Ilustrazioak kolore zikin ilunekin eraikitako alegiazko atmosfera sortzen dute, esaterako, bilduma bereko *Nire amonaren etxea* eta *Txanogorritxoren eskularruak* lanetan bezala. Pertsonaien itxurak ere laguntzen

du atmosfera horretan, batik batik sorginak eta berarekin bizi diren piztia arrarok. Gidoia eraginkorra izanagatik, uste dut irudietan jotzen duela goia (Edward Hopperren lanekin parekatzen ditu kritikari frantses batek), formatu honetako lanekin askotan gertatzen den gisan. Izanaz izan, Txo! bildumako album berri honek aspaldi ikusitako sorginik beldurgarriena jartzen digu begien aurrean. Sinisten ez badidazu, ikusi liburuaeren azala... Ai ama!



'Sorgina kiris karras'
Idazlea: Tina Meroto. **Ilustratzailea:** Maurizio Quarello. **Itzultzailea:** Mikel Goikoetxea. **Argitaletxea:** Txalaparta-OOO.

Gure tradizioa

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero


Tapa gogorreko eta tamaina handiko (31x22 cm) liburu da, 64 orrialde sendoz hornitua. Burunda inguruko ahoko tradizioari bi ipuin album formatura egokituta eskaintzen zaizkigu, antza Ahotsak egitasmoko grabaketak eta Jimeno Jurioren bilketa etnografikoak oinarri direlarik. Albumetan ohi den gisara, testuak eta irudiek elkarlanean dihardute. Irudiek orrialde osoak hartzen dituzte. Pertsonaiak irudikatzen dira, batik batik, eta koloreekin misteriozko atmosfera sortzen da. Idatzizko edergailurik gabe agertzen da, transkripzio baten eran ia, boz gora irakurtzeko egokia den neurri horretan. Iruditzen zait asmatu egin

dutela Mainamikirri egungo testuingurura ekartzeko, tradizioaren haria behartu gabe. Iazko udaberrian izen bereko liburu bat atera zuten, edizio xumeagoan eta ipuin bakarrekin, baina izandako arrakastak akuilatuta, bigarren edizio hau plazaratu dute, formatu zainduago batean, eta Mainamikirriren beste ipuin bat gehituta. Biak ala biak autoedizio erako ekimenak dira. Erosteke, Nafarroa Oinez-en dendetara eta Altsasu inguruko liburu dendetara jo.



'Mainamikirri'
Idazlea: Castillo Suarez. **Ilustratzailea:** Morkots. **Apailatzailea:** Enara Intsausti. **Argitaletxea:** Fanietorri.

Euskal mitoari buruzko hainbat tradizio eta gogoeta du bigarren izenburu liburuak. Besteak beste, animismoa, sinismen zaharrak, euskal mitoaren sorrera, euskal inauteria, udako solstizioa, udazkeneko ekinokzioa, Santomasak, Olentzero eta beste hainbat ohitura ditu hizpide.



'Itzulpengintza literarioaren gida. Frantsesa / Euskara'
Egileak: Arrate Aldama Epelde, Juan Ibeas Altamira, Marina Ruiz Cano, Lydia Vazquez Jimenez. **Argitaratzailea:** EHU.

Alderantziko itzulpen literarioaren eta zuzenekoaren hastapenatarako tresna bat da liburu, itzulpengintzako ikasleentzako gida bat. Frantsesezko literaturako gaur egungo testuak zein klasikoak proposatzen ditu.